

Adiskideok:

Ziur asko jakingo duzuen bezala, Europar Batasuneko herrialdeek **2009 Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtea** izendatu dute. Innobasquetik gure gonbita doakizue Euskadin egiten ari garen berrikuntza-ahaleginean jarrai dezazuen, eta horretarako parte-hartze aktiboa eskatzen dizuegu programa honetan. Ekimen honek Euskadik eremu guztietan berrikuntza sustatzeko egiten dituen ahaleginak aitortzen eta indartzen lagunduko du, honela europar erreferentea izan gaitezen 2030. urtean. Azken batean, zuen laguntza eskatu nahi dugu "2008 berrikuntza-urtea Euskadin" programarekin hasi genuen sentiberatzeko eta mobilizatzeko euskal estrategiarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

### **Zertarako?**

Orain arte egindako lan handia aprobetxatzeko, eta Berrikuntzaren Atea igarotzeko, zeren eta ate birtual horrek, 2008an Euskadin egindako ekintza-programatik abiatuta, Europan ikusgarriagoak izatera eramango baikaitu.

Europar ekimen honen helburua jendearen gaitasun eta ahalmenak sendotzea da aldaketarako irekita egon daitezen, eta ikus dezaten beraiek dutela eboluzionatzeko giltza eta, beraz, berritzeko ere bai. Horregatik, 2009an zehar hitzaldiak, ekitaldiak eta proiektuak antolatuko dira, berrikuntzaren garrantziaz jendea sentiberatzeko. Eztabaida eragingo da eta sormenak berrikuntzan duen eginkizunaz kontzientzia harraraziko da. Informazio- eta sustapen-kanpainak ere egingo dira, eta jardunbide egokien adibideak identifikatuko dira. Ekintza hauek guztiek helburu komuna dute, eta horren inguruan ari gara lanean Innobasque osatzen dugun guztiok: berrikuntzaren aldeko ingurunea sortzea, ezagutza produktu eta zerbitzu berritzaile bihurtzeko.

### **Nor?**

Euskadik bizi duen eraldaketa sakonarekin konprometituriko eragile guztiak. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak Innobasqueri eskatu dio programa honetan parte har dezala ekimenean sartu nahi duen erakunde guztien Idazkaritza Tekniko gisa jarduteko.

Beraz, bideratzaile-lana egingo dugu zabalkunde- eta sentiberatze-proiektu handinahi honetan beren eguneroko jardueraren bidez parte hartu nahi dutenentzat. Esan gabe doa zuen lankidetzara behar dugula, zeren eta, Innobasqueko bazkide gisa, zuen erakundeak Eraldaketarekin konprometituriko eragileak baitira, ekimen honen bozgorailuak eta eragile pro-aktiboak.

### **Nola?**

Era askotara, zuen irudimena asmatzeko gai den beste eratan. Lehen konpromisoa oso erraza da: hartu eta erabil itzazue **Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtearen logoa eta lema: "Imajinatu. Sortu. Berritu"**.

Ondoan doa logotipoa hainbat hizkuntzatan, baita dagokion korporazio-identitatearen eskuliburua ere, zuen komunikazio-elementuetan sartu ahal izan dezazuen, bai ekitaldi jakin baterako, bai zuen ohiko euskarri eta baliabideetan erabiltzeko (paper, sinadura elektronikoa, e-mail, web, faktura, kartel, blog, ordenagailuen hondo-pantaila, argitalpen, eranskailu, etab.).

Irudi honen erabileraz edo zuen ekitaldien zabalkundeaz inolako zalantzarik sortu edo iradokizunik baldin baduzue, dudarik gabe jarri gurekin harremanetan:

ESTÍBALIZ LEÓN

Sustapen eta Komunikazio Saila

eleon@innobasque.com

Tel. 944 209 488

### **Beste ezer?**

Oraingoz, ekimen honen nondik norakoa Europako web gune honetan jarrai dezakezue:  
<http://create2009.europa.eu>

Laster helaraziko dizkizuegu geure inguruneko beste zabalkunde-erreferentzia batzuk.

Ez dugu lehenengo jakinarazpen hau bukatu nahi biziki eskertu gabe zuen parte-hartze aktiboa iazko urte osoan. Hori gabe, guztiz ezinezkoa izango zen 2.008 ekintza baino gehiago gauzatzeko jarri genuen helburu handinahia betetzea.

Aurten ere ekitaldi egitekotsua daukagu aurrean, baina zuen laguntza bete-betean izango dugulakoan gaude. Abia gaitezen, beraz: Imajinatu. Sortu. Berritu.

Agur bero bat,

Sustapen eta Komunikazioko Lan-taldea

Estimados amigos y amigas:

Como probablemente ya sabréis, los países miembros de la Unión Europea han designado **2009 como el Año de la Creatividad y la Innovación en Europa**. Desde Innobasque queremos invitaros a continuar con el esfuerzo de innovación que estamos realizando en Euskadi, para lo cual os solicitamos vuestra participación activa en este programa. Esta iniciativa contribuirá a reconocer y potenciar los esfuerzos de Euskadi para promover la innovación en todos los ámbitos, y convertirnos de este modo en EL referente europeo en 2030.

Queremos, en definitiva, solicitar vuestra colaboración para continuar con la estrategia vasca de sensibilización y movilización iniciada con el programa "2008, Año de la Innovación en Euskadi.

### ¿Para qué?

Para aprovechar el enorme trabajo realizado hasta ahora, y cruzar la Puerta de la Innovación, una puerta virtual que nos lleva, a partir del programa de acciones desarrollado en 2008 en Euskadi, hacia una mayor visibilidad en Europa.

El objetivo de esta iniciativa europea es potenciar las capacidades y aptitudes de las personas para que estén abiertas al cambio, y vean que son ellas quienes tienen la clave para poder evolucionar y por tanto, innovar. Por eso, a lo largo de 2009 se organizarán conferencias, eventos y proyectos encaminados a sensibilizar a la población sobre la importancia de innovar. Se promoverá el debate y se concienciará sobre el papel que tiene la creatividad en la innovación. También se llevarán a cabo campañas de información y promoción, y se identificarán ejemplos de buenas prácticas. Todas estas acciones tienen un objetivo común, en torno al cual estamos trabajando quienes formamos parte de Innobasque: crear un entorno que favorezca la innovación para poder transformar el conocimiento en productos y servicios innovadores.

### ¿Quiénes?

Todos los agentes comprometidos con la intensa transformación que está experimentando Euskadi. El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación ha solicitado a Innobasque que participe en este programa como Secretaría Técnica de todas aquellas organizaciones que quieran sumarse a la iniciativa. Desarrollaremos, por lo tanto, una labor de facilitadores para quienes quieran participar con su actividad cotidiana de difusión en este ambicioso proyecto de divulgación y sensibilización. Sobra decir que necesitamos vuestra colaboración, ya que, como socios de Innobasque, vuestras organizaciones son

agentes comprometidos con la Transformación, altavoces y agentes pro-activos de esta iniciativa.

¿Cómo?

De muchas maneras, de tantas como vuestra imaginación sea capaz de concebir. Un primer compromiso en este sentido es sumamente sencillo: os pedimos que hagáis vuestro el **logo y el lema del Año Europeo de la Creatividad y la Innovación: "Imaginar. Crear. Innovar"**.

Adjuntamos el logotipo en diferentes idiomas, así como su manual de identidad corporativa, para que podáis insertarla en vuestros elementos de comunicación, bien para un acto en concreto, como en el uso habitual de soportes y medios (papelería, firma electrónica, e-mail, web, facturas, cartelería, blog, fondos de pantalla de ordenador, publicaciones, pegatinas etc.).

Para cualquier duda o sugerencia que pueda surgir sobre la aplicación de esta imagen o la difusión de vuestros eventos, no dudéis en poneros en contacto con:

ESTÍBALIZ LEÓN

Área de Promoción y Comunicación

eleon@innobasque.com

Tel. 944 209 488

¿Algo más?

Por el momento, invitaros a que sigáis la marcha de esta iniciativa en la página europea:

<http://create2009.europa.eu>

En breve, os haremos llegar también otras referencias de difusión de nuestro propio entorno.

No queremos terminar esta primera comunicación sin agradeceros sinceramente vuestra participación activa durante el año pasado. Sin ella, hubiera sido del todo imposible cumplir el ambicioso objetivo de celebrar más de 2008 acciones.

Tenemos por delante un intenso ejercicio, en el que confiamos plenamente en contar, una vez más, con vuestra colaboración y apoyo. Allá vamos: Imaginar. Crear. Innovar.

Un saludo,

Equipo de promoción y comunicación